

IFARRAIZEAREN GAUETAN

ENEKO FRAILE

«ERRETERIAKO HIRIA» ipuin lehiaketa, lehen saria.

Bere buruagandik ihesi heldu zela zioten Lutey faro ondo-ko egurrezko bordaro. Ez zekien inork nondik zetorkion izena. Besterik gabe gau batez azaldu zen herrira eta zuzenean faruko bidea hartu eta txabola bat jaso zuen. Urteekin, bere txabola berritu, handitu, lurreratu eta berriz handiago bat jasotzen zuen heinean, herritarrek beldurra galdu zioten lapur gisan gauetz azaldu zen gizaki arraro hari, nahiz beti gorde izan zuen misterios eta erratuaren aipu bat, marinela zaharrek bazkatzen zuten haur irudimen feerikoitan batez ere.

Ez zuen lan formalik egiten. Goizetan hondartzan paseiatzen zen itsasoak ekarritako aleka eta hondakinak arakatzen, non biltzen zituen olatuek borobildutako koloredun beira zatia eta zintzilikatzen zituen ifarreko lehio parean hilbetsan argi egin zezaten. Behin aulki kulunkari zarpail bat aurkitu zuen eta, apur bat taiutu ostean, urtetan lagunduko zion bere kulunka irregularrez arratsetan eguzkia agurtzen.

Haseran, astero herrira agertzen zen janari eta bestelako hornigaiak erostera. Horrelakoetan denak bat zetozen, magikoa zela bera pasatzen zen kaleetan klunkan geratzen zen izpura, zeinak bazuen herriko haurrak bildu eta laberintu maldatsu hartan bere gibeletik eramateko birtute bereizia. Herritarren jazargo honek ezeroso senti arazten zion eta azkenik dorre zaintzaile mesfidatuarekin tratua egitea erabaki zuen, herritik behar zituen osagaiak berak ekar zitzan. Honela kasu benetan beharrezkoetara soilik mugatu zituen herrirako bere irtearak.

Alderantziz, mendirako joera areagotu egin zitzaion. Sarritan larruzko poltsa iatxe bat lepotik behera sartu eta urertzea jarraitzen zuen egun batzuetan desagertzen zelarik. Gero, joan zen bezala jiten zen itxura apurtuak zarpailduagoarekin eta zenbaiten irudimena zirikatzen zuen beira zatiz batetako larruzko poltsarekin.

Txango hauetakoa batean heriden zuen gero gertakari harriarriaren agerteki izango zitzaion hondartza. Itsas golko txiki batean zegoen, marinela zuherrenek bakarrik gogoratzen zuten aremu galduetan. Han, geografia fantastiko batez inguratutako karpeta bat zabaldu ohi zuen hondarrean eta gaua pasaitzeko antolatzen zen. Harritzen zen zelan ez ziren han inoiz ikusten, hain ugari ziren oihal untzi eta hasi berriak ziren lurrun untzirik.

Batzutan, gauetz, olatuek ekarritako egur eta ohol pusketaz eginiko su gorriaren inguruan, kanta bat aditu uste zuen. Haseran olatuen edo haizearen jukutria izango zelakoan zegoen, baina azkenean onartu behar izan zuen ahots bat zela, nahiz argi zegoen ez zela giza ahotsa; lamien kanta.

Honela ikasi zuen argitzen haizeak ozta ekartzen zizkion ele itxuraz funtsik gabeko haiek, zeinak hitzegiten zioten urtetan loa debekatuko zioten altxor eta erreinu epikoez.

Itsumen gordina izatera heldu ziren kanta ezti miragarriok. Urruneko herrialdeetatik lamia, deabru eta maitagarri mitologikoetatik ari ziren liburu guztiak ekarri arazi zituen. Urduri itxaron zituen hilabete askotan eta azkenean heldu ziren, bere bidean herritar txundituen begiak harrapatzen zituen, kaizaz beteriko gurdien batean.

Ez zion halere honek gehiegi lagundu eta azkenean hortik zehar galduriko kutxa megalitiko batean ahantzirik amaitu zuten liburu guztiak. Kaizak berriz, geroago xede benetan bitxi batetarako erabili ziren.

Goiz batez larruzko zorroa ohi baino gehiago zamatu eta urte betean ez zuten gehiago ikusi herritarrek. Hondartzara joan zen.

Hondartzan, jade karpa zabaldua zuenean, urertzetik sua egiteko egur pilarekin zetorrenean, erreparatu zen aloka artean ezkutaturiko mukuluaz. Lehenengo arrain handi bat zela otu zitzaion ezen arrain isatsa agertzen bait zen aloka artean. Egur guztiak banan bana erortzen laga zituen emakume gorputza zuela ikusi zuenean. Haseran ez zuen jakin ihesi erten, izaki hura itsasora bueltatu ala zirko bati saldu. Gero ordea, harrapatzen zuten soka eta saraek alden zizkionean, ikusi ahal izan zuen zein zen ederra. Zeharo asaldaturik, sinetsi ezinean, besapeetatik hartu zuen esku dardaratiez eta karpatorra narraztatu zuen. Han oraindik mogitzen zela ohartu zen. Laster batean erten zen egur bila eta berehala sua antolatu zuen, beti begiak sirena mitologikoari gaintetik kendu gabe. Ez ziren gizakiarenak, arrainarenak apika, zabaldu zituen begi ezin lurruntsuago haiek. Apur bat harriturik ikusi zuen ez zitzaiola okaztagarri arrain isatsa, alderantziz, grina ezezagun bat pizten ziola, eta lastandu zizkion itsasoaren usaineko ile luze berdeak, zeinak bulartxoengain jausten ziren goroldio urjausi bailiren.

Honela hasi zen hondartza fantastiko hartan inoiz, inon izan den erlaziorik bitxienean. Haseran ez zuen ezer esaten, apika hizketan ez zekiela otu zitzaion Luteyri. Gero ordea irribarreak tartekatzen hasi zitzaizkion edaderik gabeko aurpegi milurtekoan, eta azkenik goizatan, olatuen lantua baillitza, signaren kantu hordigarriaz itzartzen zen. Batzuetan asalduari kontu ezinik itxaragabeki malkoak isurtzen zituen iturri jarrai batean eta hain ziren liluragarriak sirenaren kantak, non amaitzen zuenean kantiplora gainean jausten bait zen egarri lehorra asetzeko.

Ez nuen nehoiz hizketan ikasi, nahiz Lutey saiatu zen gogotik. Ez zuen behar, begiekin hitzegiten zuen, eta gauza bixia, Lutey izan zen begiekin hizketan ikasi zuena.

Honela jakin zuen goiz batez, sirena lurra uztera zihoala itsasoan barneratzeko. Nire aizpak zain ditut, esan zion begiekin.

Lutey ez zuen ulertu nahi izan. Saiatu zen esplikatzen bera gabe ez zuela bizitzeko arrazoi handiagorik, urertzeko arean etzango zela mariak estal zezan arte berak alde egiten bazuen. Baina ulertu zuen azkenean itsasoak badituela bere legeak lurrak bezala eta gainera pentsatu zuen erdi emakume erdi arrain zenez itsasoan burutu beharko zuela bizitzeko zikloren bat. Hau onaturik ere ez zuen amor eman. Garrisai egin zion lotu egingo zuela enbor batean eta kantatu arte zigortuko zuela bahin eta berriz, baina azkenik berriro besapeetatik eldu eta ekarri izan zuen bezala narraztatu zuen, haur baten gisa nigarrean leherturik. Uretara hurbildu ahala ahantsia areagotzen joan zitzaion sirenari eta astinaldi frenetikoak ematen hasi zen ur gazia ikutu zuenean, uretatik kanpo den arrainaren iltamu luzea lez.

Bederatzi urte, esan zion sirenak bagiekin, eta olatuen artean ezkutatu zen. Une batez txunditurik gertatu zen Lutey, eta gero, bapatean, hondamendiaren neurritz jabatu zenean, itsasoan barneratu zen sirenari ero ahotsez deika. Ez zuen nehoiz jakin ostean zer gertatu zitzaion, bakarrik are hezean esnatu zela aloka artean bildurik, garai batean sirena hediren zuen toki berberan.

Belunak izan ziren ondorengo egunak. Ez zuen apenas jaten eta aurpegia zurbiltasun jarrai batean jausi zitzaion. Egun osoa pasatzen zuen inoiz untzirik agertzen ez zen itsaso hura zelatatzen. Pentsatu zuen aritz basati haiek ebaki eta almadia batean itsasoan barna urruntzea; baina azkenean karpatoa bildu, larruzko zorroa bizkarrean hartu eta atzera behatu gabe urrundu zen hondartza hartatik.

Bederatzi urte—murmurikatu zuen area zanpatzeari laga zionean.

Eta asko geroago zahaztasun asaldaturik kondatu behar zuen faro zaintzaileak Luteyren agerpena. Lutey bera ere harriturik geratu zen atearen atzekaldean oskegia zen brontzezko ispiluak itzuli zion isladaz. Bere aurrean bizar zuri eta ile luze nahasidun agure ezezagun bat kausitu zuen, praka, jaka, eta oinetako urratuekin.

Bere etxolan sartzeak ordea errealitatera itzuli zuen eta guzti hura jasotzeko gogoak berpiztu zitzaizkion. Orduan ikusi zuen zelako egoera negargarrian zetzan txabola; edonondik barreiatu armiarma sare brodatuak, lehio sareak zintzilik, zapaia; itotiak.

Biamunean herrira joan zen. Belaunaldi askok gogoratu zuten kale nagusian Robinson Crusoe agertu zeneko hura, gaur egun zaharrenek ere kondatzen dutena. Bizartegian sartu zen lehenik eta gero jantzi dendan. Ondoren pintura, iltzeak, argientzat arrolia erosi zituen eta arotza eraman zuen bere bordara. Hau konpondu, hura margotu, beste hura berri, berehala itxura ezin apainago bat hartu zuen Luteyren etxolak. Zuriz margotu zuen guztia azkenik, eta lorontziak ezarri zituen edonondik. Hondartzako ohizko pasiotara eta beira zatiak biltzera bueltatu zen, zeinak baziren jada pila handia ifarreko lehio parean eta berak nahi bezala fantasiako izar koloredunetan murgiltzen zuten etxola hiltzaren gauetan.

Usoak mezularitzan hezteko burutapen bitxia ukan zuen eta ekarri zituen batzuk inork ez daki nondik. Garai batean herria harritu zuten kaizatzeekin moldatu zuen usategia. Eginahal guztiak egin arren ez zuen inoiz lortu eta berak azkenean usoen kastari bota zion errua. Halere usoen hegaldi zalapartatsuz alaitu zen txabola eta gaur egun ere ikus daitezke oraindik, garai batean Luteyk ekarritako usoen ondorengoak borda eroriaren inguruan hegaka.

Arazo baten aurrez aurre aurkitu zen orduan. Ez zen egunik, parnasoko lorategietako harrizko eroe mitikoa bailitzan, uso kaka zarratez josten ez zenik. Guardasola erabiltzen hasi zen lehenik, aulki kulunkarietako arratsetan. Gero hori ere ezin jasan izan zuen ezen ekaitz azpiko arbolapean bait zirudien, eta bordaren sarreran egurrezko estalpe bat eraiki zuen aulki kulunkaria ezartzeko.

Eta urteek heuren bidea jarraitu zuten. Laster gabe, sirenaren historia amets urruna bihurtu zen.

Amets eta paperezko amodioa izan zen hura, murmurikatzen zuen sarritan. Halere oroitzen zituen hizketan irakatsi zizkien begiak, arraina baino beroago baina gizona baino hotzago zen gorputz hura eta batez ere itsasoari ikasitako eleak, doinuak, nigar egin arazten zioten kantak. Sarritan oroitzen zuen guzti hau aulkiaren kulunka irregularretan, arrastiaren geriza luzatueta, kaioen, usoen trazu ikusezinetan.

Honela, oharteketa, pasa ziren bederatzi urte eta gau batez kolpean esnatu zen eta ametsetan iltamu amaigabea agertu zitzaion sirenaz gogoratu zen. Laster batean jeiki, jantzi eta arrolio kriseilu bat hartuta abiatu zen lehenago gauetz inor abiatu ez zen ariztian barna.

Egunsentian heldu zen hondartzara arnas estuka eta zuzur beldurgarri batez oinazetua, baina ez zuen ezer ere ikusi goizeko itzal gris iratzarri gabeetan. Orduan gibelean, ahuen bat, ahuen arras ezti bat aditu zuen. Bera zen. Ur ortzetik urrats askotara zegoen bederatzi urte lehenago bera ezkutatu zen bide aldera. Lehortuak zituen azala, begi ertzak, ezpainak. Soilik ile berde goroldiotsua mantentzen zen ohizko itsaso usainarekin. Haren gorputza berearen kontra estutu zuenean zabaldu zituen begiak. Heldu zara, esan zion begiekin.

Bai. Hemen naiz.

Luteyren nigarra sirenaren masail lehorretik barna, gero bular artetik, zilborretik, eskama artean gordetzen zen.

Zure bila abiatu naiz, esan zion sirenak.

Orduan bederatzi urte lehenago egin zuen lez, bederatzi urte lehenagoko bide berberetik, narraztatu zuen sirena olatuak kristalezko zeta bailiren lehertzen ziren urertzera. Kantatzen hasi zen sirena Luteyri hain atsegin zitzaizkion kantak. Uretan sartuko zaitut, eta berpiztuko zara, eta zure aizpak etorriko zaizkizu bila, edo bestela neroni murgilduko naiz uretan eta ez gaitu inork banatuko, esaten zion Luteyk arnas estuka. Sirenak ordea geroa eta bajuago kantatzen zuen, ia ez zen aditzen bere doinua, baina ezpainak mogitzen zituen oraindik.

Mesedez, jarrai kantatzen.

Baina bere besoetan pisua areagotu zenean ulertu zuen jada gorpu zela. Begiak zabaldua utzi zituen azken frasearekin:

Gure amodioa benetazkoa izan da, ez amets edo paperezkoa.

Ez zen Lutey gehiago itzuli. Batzuk diote sirenaren gorpuaren besoetan hartu eta itsasoan hondoratu zirela, besteek berriz hantxe bertan urtu zirela malkotan, garai batean Luteyk hain atsegin zituen doinuek isur arazten zioten malkotan, ezen arrolio kriseilua handik ez urrun aurkitu bait zuten urte asko geroago.

Handik egun batzutura dorre zaintzailea ohi bezala janiarekin hurbildu zenean hutsa ediren zuen etxola. Ez zen atzekaldean brontzezko ispilua zeraman borta gehiago zabaldu. Hondoratzen joan zen emeki etxola denborarekin, Luteyren oroimena bezala.

Gaur usoak geratzen dira bakarrik. Usoak eta besaulki kulunkariaren kirrinka irregularra ifar haizearen gauetan.